

## **EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO DEIALDIA (2025)**

### **Behin-behineko Ebazpena**

UPV/EHUko Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako errektoreordetzak 2025eko euskararen erabilera sustatzeko diru laguntzen deialdia argitaratu zuen 2025eko urriaren 17an.

Eskaerak aurkezteko epea amaituta, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak garaiz eta behar bezala aurkeztutako eskaera guztiak aztertu ondoren honakoa

#### **EBATZI DU**

- I. Onartzea deialdiaren xedearekin bat egiten duten eskaerak, zeinak eranskinean zerrendatzen diren.
- II. Bost egun balioduneko epea zabaltzea, 2025eko azaroaren 14tik 20ra arte, onartu ez diren eskaerek alegazioak aurkezteko aukera izan dezaten, egokia iritziz gero.

Alegazioak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 e) artikuluan eta UPV/EHUko Idazkari Nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko ebazpenean ezarritakoaren arabera aurkeztu beharko dira. Ebazpen horren bidez, UPV/EHUrekin dituzten harreman elektronikoetan interesa duten pertsonen identifikazio eta sinadura elektronikoari buruzko instrukzioa onartzen da, eta UPV/EHUko Erregistro Elektronikoan URL helbidea: <https://egoitza.ehu.eus>. Erregistro egiterakoan, "Azaltzen du" atalean "Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetza" adierazi beharko da, eta "Eskatzen du" ataletan "Euskararen erabilera sustatzeko deialdia 2025. Alegazioa", hurrenez-hurren.

Leioan, 2025eko azaroaren 13an

Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetza